

## Bi gizon handi

DOI: 10.1387/gogoa.18645

2017 urtearekin bi GOGOAkide joan zaizkigu betiko. Piarres Xarritton martxoaren 17an hil zen; Juanba Berasategi handik hilabete pasatxora, apirilaren 28an. Kolpe latzak biak urteotan guztiotan GOGOA aurrera ateratzen ibili garenontzat eta, bereziki, niretzat.

Xarritton irakasle izan genuen batzuek, Zorroagan, Filosofiako unibertsitate-ikasketa ofizialetan lehenbiziko aldiz Etikako eskolak euskaraz ematen hasi zenean. Artean irakasgai bakan batzuk baino ez ziren eskaintzen euskaraz, eta, pixkanaka, irakasle eta ikasle gutxi samar batzuen erabakitasonari esker, lortu zen eskolak euskaraz ere eskaintzea. Pozik hartu genuen Xarrittonen etorrera. Gustura galdetuko nioke *Euskal Herriko Unibertsitatean* zenbaitetan sentiarazi zuten —eta genuen— frantses. Posta elektronikoa erabiltzea ohikoa zen garaietan ibili zen Xarritton GOGOAREN aholku batzordean: 2004tik 2008ra. Gutunak eskuz idatzita bidali zizkidan, ordea, mezuak. Mezu goxo eta gogo onenez beteak.

Juanba Berasategik GOGOAN parte hartzea, berriz, beste bide batzuetatik etorri zen. ILCLIREN egoitza Donostiako Mirakruz gainean zegoen, Arzak jatetxearen ondoan, Lotura Films-en tailerraren parean. «Alto Vinagres» omen deritzan tokian, noizbait gero Juanbak irakatsi zidanez. Juanbak eta ILCLIREN sortzaile *Tarzanek* elkar ezagutzen zuten «Parisko [ikasle] garaietatik». Loturako artistak eta ILCLIKO ikertzaileak makina bat aldiz elkartu ginen Añaren [sic] jan-edan tarte luzeetan. *Mano-mano* beste askotan, «Juanba» plater konbinatuak eta J&B txupitoak irensten, zinemaz, filosofiaz eta politikaz (ez ordena horretan, ez inongo ordenatan ere) hitz egiteko. Eta unibertsitate publikoan ere euskararen aldeko militantzia egin zitekeela —egin behar zela— ulertu zuen. Eta taxuzko ikerketa egin zitekeela, taxuzko arteari lotuta, euskaraz, apal baina konplexurik gabe. Eta GOGOAREN edukiez eta azalez ere hasi ginen hitz egiten. Juanbak egindako 14 azal argitaratu genituen GOGOAREN 2001eko lehen aletik 2007 arte. Baina gehiago ere prestatu zituen urte horietan; bakarrik hasieran, Zuriñe Sistiagaren laguntzarekin gero. GOGOARAKO lankidetzaz aparte, beste hainbat gauza partekatzeke aukera ere

izan nuen Loturakoekin *Alto Vinagreseko* urte haietan. UPV/EHUK ez zidan mesede egin, alde horretatik ere, Ibaetara eraman gintuenean.

Ohore handia izan da Piarres Xarritton eta Juanba Berasategi ezagutu eta GOGO Ara lanera erakarri izana. Ezagutu dituen bat datorke segur aski, bien ala biak izan direla gizon on eta azkarrak. Borrokalari abertzale sutsu eta irribarretsuak. Dotore eta xarmantak.

Piarres jaun handia, Juanba jaun argala: plazer handia izan da, zinez.

Donostian, 2017ko azaroaren 3an

Kepa Korta